

2018. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2017ko abenduaren 22an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2017/12/29. 247. zk., 6. zatia. Akats zuzenketak BAO 2018/01/24. 17 zk.

ORDENANTZA FISKALA, BIDE PUBLIKOKO LURZORUA, LURZORU-AZPIA ETA HEGALDURA OKUPATZEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASEA ARAUTZEN DAUENA

1. artikulua: KONTZEPTUA.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 28ko 7/1985 legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabilteko eta Tokiko Ogasunen bagilaren 30eko 5/89 Foru Arauaren 15-18. artikuluetan ezarritakoagaz bat etorrira, bide publikoko lurzoria, lurzoru-azpia eta hegaldura okuotzeagaitik tasea ezarri da. Tasa hori ordenantza fiskal honek eraenduko dau, eta haren arauak Foru Arau horren 20. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa bete beharko dabe.

2. artikulua: ZERGA EGITATEA.

Zerga egitatea da udalaren herri jabariaren aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboa.

3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA.

Zergadun lez subjektu pasiboak dira lizentziak edo emakidak jasoten dituen pertsonak edo erakundeak, edo aprobetxamenduaren onuradunak, baimen egokirik barik gauzatu badira.

4. artikulua: ZERGA OINARRIA

Herri jabariko erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatu dan unidate bakotxa izango da zerga oinarria, hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. artikulua: KUOTEA

1.- Ordenantza honetan araututako tasea hurrengo 4. atalean agertzen diran tarifetan finkaturikoa izango da.

2.- Halan eta guztiz be, udalaren bide publikoetako lurrazpiko, lurzoru gaineko edo hegalduretako aprobetxamendu berezien edo erabilera pribatiboen tasea enpresek udalerrian lortuko daben fakturaziotik datozen sarrera gordinen %1,5ekoa izango da, beti be hitzarmenean xedatutakoagaz bat etorriz. Aprobetxamendu berezien eta erabilera pribatiboak auzotar guztiei edo batzuei eragiten deutseen hornidura zerbitzuak ustiatzen daben enpresen aldekoak dira.

3.- TELEFONICA S.A. enpresari egokituko jakon kopurua zemendiaren 30eko 10/87 Foru Arauan oinarrituta urtero esku dirutan egiten dan konpentsazioan sartuko da.

4.- Honeexek dira tasearen tarifak:

1.- Baskulak, zutoinak, kableei eusteko tximitelak, lotune,	10,23 €
---	---------

banaketa eta erregistroko kutzak, bakotxa urtean.....	
2.- Transformadoreak, m ² -ko edo zatika urtean.....	10,23 €
3.- Edozein eratako kable edo hodi, metro lineal bakotxeko edo zatika urtean.....	0,42 €
4.- Bide publikoaren lurpea gasolina deposituakaz okupetea m ³ -ko edo zatika urtean.....	255,34 €
5.- Bide publikoaren edo herri erabilerako lurren erreserba berezia auto-eskolen edo antzekoen praktiketarako, m ² -ko edo zatika urtean	10,23 €
6.- Eraikuntzan erabilitako garabi bakotxeko, besoak edo lumak bide publikoaren hegaldura hartzen bada, urtean.....	204,47 €

6. artikulua: KUDEAKETA ARAUAK.

- 1.- Tarifen arabera eskatzekoak diran kopuruak eskatutako edo egindako aprobetxamenduagatik kitatuko dira eta epigrafe egokietan finkaturiko aldien arabera murriztu ahal izango dira.
- 2.- Ordenantza honetan araututako aprobetxamenduen emakidan interesa daben pertsonak edo erakundeek lizentzia eskatu beharko dabe aldeaz aurretik.
- 3.- Okupazioa baimenduta, aprobetxamenduaren iraupena zehatz finkatu ezik, luzatutzat hartuko da harik eta interesdunek baja adierazpena aurkeztu arte.
- 4.- Baja aurkezteak hurrengo aldi naturalaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak, tarifen epigrafeetan agertzen dan aldia hain zuzen. Bajea aurkeztu ezik, prezio publikoa ordaintzen jarraitu behar da.

7. artikulua: SORTZAPENA.

- 1.- Ordenantza honetan araututako tasea ordaindu beharra sortzen da:
 - a) Aprobetxamendu barrien eta 5. artikulua 2.a) ataleko aprobetxamenduen emakidak diranean, udalaren diru-bilketako bulegoetan egingo da ordainketea zuzenean.
 - b) Baimendutako eta luzatutako aprobetxamenduen emakidak diranean, prezio honen erroldetan edo matrikuletan sartu ostean, sei hileko naturaletan ordainduko dira udalaren diru-bilketako bulegoetan.
- 2.- Holan ordainduko tasea:
 - a) Aprobetxamendu barrien eta 5. artikulua 2.a) ataleko aprobetxamenduen emakidak diranean, udalaren diru-bilketako bulegoetan egingo da ordainketea zuzenean.
 - b) Baimendutako eta luzatutako aprobetxamenduen emakidak diranean, prezio honen erroldetan edo matrikuletan sartu ostean, sei hileko naturaletan ordainduko dira udalaren diru-bilketako bulegoetan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Enpresa ustiatzaileakaz sarrera gordinen zenbatekoa adosteko hitzarmenak egitearen inguruko 5.2. artikuluan xedatutakoa baliagarria izango da harik eta sarrera gordintzat zer hartzen dan arautu arte.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi eban Udalbatzak 2000ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran, eta haren aldaketak 2000ko abenduaren 30ean argitaratu ziran BAOren 251. alean. Halanda ze, 2001/01/01ean sartu zan indarrean eta indarrean jarraituko dau harik eta beren beregi aldatu edo indarrik barik itxi arte.